



“Bidezko Merkataritza 2015 urtea baino urrunago” Adierazpena

2013 urtean New York-en Nazio Batuek antolatutako Goi Mailako Bileran bilduko diren munduko buruei dei egiten diegu. Bilera horretan Milurtekoaren Garapenaren Helburuen lorpena erraztuko duten oinarriak ezartzea bilatzen da 2015 urtea baino urrunago, garapenerako marko global bat ezarriz eta kontutan hartuta:

- Mundu justu, berdin eta iraunkor baten sorrera helburu izatea, bertan pertsona bakoitzak bere ahalmena garatu ahal izatea pobrezian edo bazterketan bizi gabe. Marko hau Garapen Iraunkorraren hiru euskarrietan (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa) oinarritu behar da eta aktore guztiek, maila guztietan, politika koherenteak onartu eta praktikan jartzea sustatu behar du, aipatutako garapen ereduari laguntzeko.
- Nazioarteko merkatuaren arau eta praktikak berritzeko beharra identifikatzea, desberdintasunak ezabatzeko helburuarekin eta ekoizle talde txikiei eta garapenean dauden herrialdeetako langileei pobreziatik ateratzea posible egiteko helburuarekin.
- Gobernuen, bertako agintarien, enpresen, gizarte zibilaren erakundeen eta herritarren artean lan bateratuen ekimenen alde egitea, Bidezko Merkataritza bezalako ekimenen alde, kaltetuak dauden ekoizleentzat merkaturako sarbidea ziurtatzen, bizitza baldintza iraunkorrak bermatzen, *lan duinaren nazioarteko arauak errespetatzen, haurren lana ezabatzen eta ingurumenarekiko errespetagarriak diren nekazal eta ekoizpen praktikak sustatzen dituztenak.*

Guk, Eusakdi kokatuta dagoen Legazpi herriko arduradun hautetsiek, Bidezko Merkataritzaren aldeko hiri eredu baten garapenarekin konpromisoa hartu dugu. Enpresen, organismo publikoen, gizarte zibilaren entitateen eta herritarren lankidetzarekin, Hegoaldeko ekoizle eta langile talde baztertuen errealitatea gerturatu nahi dugu eta

kontsumo arduratsu baten alde egin nahi dugu, gure herrian Bidezko Merkataritzako produktuak eskuragarriagoak eginez.

Era berean, Bidezko Merkataritzaren kontzeptuarekin lotuta, Legazpi herria Elikadura Burujabetzaren europar berreskuratze prozesuarekin bat egiten du, Nyéleni-ko Adierazpenaren oinarrien inguruan, 2007 urtean Malín ospatu zen Elikadura Burujabetzaren aldeko Foroaren konklusioa. Eta gure herritik, elikadura burujabetza oinarritzko giza eskubide bat izateko eta komunitateek, herriek, estatuek eta nazioarteko instituzioen aldetik onartua eta errespetatua izateko lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, nekazal inguruen kontserbazioa eta birgaitzea, paisaiak eta ohiko elikagaiak sustatuz, lurraren, zoruaren, uraren, hazien, abereen eta biodibertsitatearen kudeaketa iraunkor batean oinarrituz.

Eta hori horrela idatziz geratu dadin, Nazio Batuetara bidaliko dugun aipatutako adierazpena onartzen dugu, lehen aipatutako bilerako parte hartzaileek kontutan har dezaten asmoarekin.

